

GERRA GIPUZKOATIK ARABARA

EUSKAL HERRIAN GERRA ZIBILEKO
ARKEOLOGIAREN BI KASUREN ARTEKO
KONPARAKETA

Egilea: Joanes Karrera Ormaetxea

Tutorea: Sergio Escribano Ruiz

Historiako Gradua

Geografia, Historaurrea eta Arkeologia saila

2017/2018 Ikasturtea



LABURPENA:

Lan honetan zehar Gerra Zibilaren Arkeologiaren inguruan arituko gara, arkeologiak iragan hurbileko gertaerak azaltzeko duen balioa mahai gainean ezarriz. Besteak beste, Gerra Zibila aztertzeko garaian zein nolako hausnarketak egin daitezkeen ikusiko dugu, mota honetako ikerketak eginez izan ditzakegun irakurketa desberdinak azalduz. Ez hori bakarrik, Gerra Zibilak berak izan zuen norabidea ere aztertuko dugu, bere materialtasunean eta paisaia utzi dituen aztarnak begiratzuz. Hala ere, esparru oso zabala hartzen duen gertakaria den heinean, Euskal Herrira mugatzea erabaki dugu ikerketa arlo hau, batez ere gerra hasieratik bukaerara izan zuen garapena. Horretarako, bi adibide hartu ditugu lanaren garapenerako, Saseta Defentsa Sistema eta San Pedro mendia zehazki. Lehena Gipuzkoan dago, eta bertan geratu diren arrastoak gerraren hasierara eramaten gaituzte (1936ko udarara), hura izan baitzen ezarri zen lehen defentsa sistema Euskal Herri mailan. Bigarrena berriz, San Pedro mendia dugu, Arabaren eta Bizkaiaren artean kokatzen dena, eta burdin hesia gertu duena, gerraren amaierara eramango gaituzten aztarnak izango ditugu bertan (1937ko udaberria). Ikus dezakegun moduan beraz, gerra hasiera eta amaiera erakusten duten bi adibide garbi dira aztarnategi horiek.

Hala ere, garrantzitsua da esatea, Espainia mailan denbora gehiago iraungo zuela, bi urte gehiago zehazki esateko, eta ondorio latzak ekarri zituen, urte luzez iraungo zuen diktadura bat izango baitzen gerra amaitu ondoren ezarriko zena. Horrek gerra izan zenaren oroimenean hutsune handia utzi zuen, garaileen bertsioa gailendu zelako besteen gainetik, eta borrokatu zuten askoren ahotsak isilaraziak izan zirelako. Trantsizioan ez zen egoera hobetu, 1977ko Amnistia Legearen bidez frankismoa epaitzea debekatu baitzen, eta ahazte politika bat jarri baitzuten martxan. Horren aurrean, Gerra Zibilaren ikuspegi desberdinak ematen hasi ziren, gehienbat agertzen ziren dokumentu desberdinetan oinarrituta edo hitz egiteko prest agertu ziren pertsona batzuen testigantzetan oinarrituta. Baina, ikerketarako iturri horiek hainbat arazo dituzte beren baitan, kasu batzuetan pertsonak duten subjektibotasunak eragingo duena, eta beste batzuetan, legediak ikerketak egiteko ezartzen dituen zailtasunetan oinarrituko dena. Horren aurrean agertuko da arkeologia, konflikto honi ikuspegi berri bat ematen, eta Gerra Zibilaren ikerketarako bide berriak irekitzen.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3-4
2. METODOLOGIA.....	4-6
3. GERRAN BORROKATU ZUTENEI BURUZ.....	6-8
4. AZTARNATEGIEN DESKRIBAPENA.....	8-25
5. KONPARAKETA.....	25-28
6. ARKEOLOGIA ZERTARAKO?.....	28-32
7. ONDORIOAK.....	32-33
8. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA.....	33-35

1. SARRERA:

Hurrengo orrialdeetan zehar aztertuko duguna gai oso korapilatsua da, nahiz eta orain dela 80 urte gertatu, oraindik ere oso gertu dugun gertakaria baita. Espainiako Gerra Zibilaren inguruan ari gara, 1936 eta 1939 urteen artean eman zena, errepublika eta sistema demokratikoa zalantzan jarri eta erregimen totalitario berri bat ekarriko zuena. Urte luzetan zehar isilarazi egin nahi izan da gerrarekin eta honek sortu duen traumarekin lotutako oroimena, eta gaur egun oraindik zailtasunak ezartzen dituen ikertzerako orduan.

Gerrari buruz asko idatzi da, eta horren bidez jadanik informazio asko dagoela ondorioztatu ohi izaten da. Baina hala ere, informazio iturri desberdinek arazoak dituzte mota honetako gertakariak azaltzeko garaian, eta adibidez, iturri idatzi batzuetara iristeko dauden zailtasunek gerran izandako gertakari asko ezagutzeko aukera kentzen digu, eta beste bide batzuk bilatu behar dira. Ahozko iturriak ere erabili ohi dira, baina bere momentuan, eta esan dugun bezala, pertsona asko isilaraziak izan ziren, eta beste asko ez ziren hitz egitera ausartu. Horrez gain, denbora aurrera doa, eta gerran borrokatu zutenak edo ikusi ahal izan zutenak zahartzen eta hiltzen ari dira.

Horren guztiaren aurrean, arkeologia agertu da gertakari hau aztertzeko metodo modura, azken finean, Espainia guztian zehar aztarna asko utzi duen gertakaria baita. Aztarna batzuk nabariagoak izan daitezke, hala nola, eraikinetan aurki daitezkeen bala zuloak, eta beste batzuk, bilatu eta sakonago aztertu behar dira, gerrako lubakiak adibidez (González-Ruibal, 2016: 29).

Eta horretan oinarrituko da gure lana, Gerra Zibileko arkeologian, pixkana zabaltzen ari den ikerketa arloa den heinean, interesgarria baita horrelako ikerketak egitea, Espainiako historiako gertakari traumatikoari beste ikuspuntu bat emateko asmoarekin. Kasu honetan, bi adibide hartuko ditugu, Saseta Defentsa Sistema eta San Pedro mendia, lehena Gipuzkoan kokatzen dena eta bigarrena Araban. Horien bidez, Euskal Herrian eman zen gerraren garapena ikusiko dugu, zer aldatu zen eta zer ez, kronologikoki eta geografikoki bi muturretan aurkitzen diren defentsa sistemak baitira.

Azkenik, mota honetako arkeologia egiteak duen garrantziaz ere jardungo dugu, hausnarketa modura, eta ikertuko ditugun bi kasuak esku artean ditugularik. Gai honi buruzko ikerketak egiteak dituen arazoak sakonago ikusiko ditugu eta arkeologiak

metodo modura horrelako gertakariak azaltzeko eta beste modu batera ikusteko dituen gaitasunak mahai gainean ezarriz.

2. METODOLOGIA:

Lan hau burutzeko, Saseta Defentsa Sistemari eta San Pedro Mendiari buruzko informazioa baliatuko dugu: egin diren kanpainak, gerraren ingurunea, horrek utzitako paisaia, zein nolako aztarnak aurkituko ditugun eta abar. Indusketa horiei buruz esan beharrekoa da kanpaina nahiko berriak direla, eta bietan oraindik informazioa biltzeko dagoela. Bestalde, indusketa berriak izatea metodo aldetik ere nabaritzen da, bietan antzeko prozedimendua eman zelarik:

- Saseta Defentsa Sistemari: Lehenik eta behin, miaketak egin ziren puntu zehatz batzuetan, eta sektore desberdinak definitu ziren. Ondoren, sektore horiek garbitu egiten zituzten, hala behar izan ezker (sastrakak edo belar txarrak kentzeko), eta aurrez definitutako sektore horietatik metal detektagailua pasa zuten, detektatzen ziren objektu metalikoak kokatuz, eta ondoren kontu handiarekin (su-armen hondakinak izanik, lehertu egin daitezke) induskatuko lirateke. Izan ere, lurrazaletik ez da zertan asko sakondu, Gerra Zibila nahiko gertu dugun gertakizuna den heinean. Beraz, hemen egindako lanak gerrarekin lotutako objektuak bilatzera eta sistema defentsiboak definitzera eta ezagutzera bideratu ziren (Almorza eta Buces, 2016: 71-72).
- San Pedro Mendia: Hemen, base topografikoak ezarri ziren lehenik, industuko ziren sektoreak definitu ahal izateko. Horren ondoren, garbiketa lanak egin zituzten sektore horietan, makineria astuna erabili beharrik gabe. Aipatu beharrekoa da, garbiketa fase hori ematen ari zen bitartean, Gerra Zibileko objektu batzuk aurkitzen joan zirela (metraila bereziki), baina hori detektagailuekin beren kolekzio pertsonala osatzeko gerrako materialen bila joaten diren zaleen arrastoak izango lirateke, gune hori gerra ezkeretik oso gutxi aldatu den tokia baita, erakargarritasun handia izango duelarik. Garbiketa hori egin ondoren, lubakia betetzen zuen lurra ateratzen joango ziren poliki, lur originala aurkitu arte (Ayán eta Santamarina, 2016: 24-26).

Horrez gain, lan taldeei dagokienez, Saseta Defentsa Sistemari Aranzadi Zientzia Elkartearen bidez joaten diren boluntarioekin egin zuten lana, gehienbat Historiako ikasleak izaten zirenak; eta Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo udalen laguntzarekin. San

Pedro Mendián aldiz, orokorrean Euskal Herriko Unibertsitateko eta CSIC-eko (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) kideek osatuko zuten lan taldea, eta Unibertsitateak, Amurrioko udalak eta Eusko Jaurlaritzak eman zuten laguntza.

Bestalde, iturri idatzi batzuk erabiltzeko aukera ere egon da, nahiz eta ez den informazio gehiegi agertzen. Besteak beste, borrokatu zuten batailoien inguruko informazioa aurki dezakegu, baina hortik aurrera ez dago informazio gehiegi iturri idatzietan. Beraz, batez ere Saseta Defentsa Sistemaren inguruan 2016an publikatu zen liburua erabiliko dugu, eta San Pedro mendiari dagokionez, 2016ko Memoria Teknikoa. Horrez gain, Gerra Zibilaren arkeologia lantzen duten zenbait artikulua eta liburu ere agertuko dira lan honetan, gai honen hausnarketara iristeko baliogarri egingo zaizkigunak.

Lan honen marko teorikoa lantzeko ere zenbait artikulua erabiliko ditugu, batez ere bukaerako hausnarketak gauzatzeko erabiliak izan direnak. Oinarrian erabiliko dugun teoria beraz, batez ere Aro Garaikideko Arkeologia izango da, konkretuki Gerra Zibilaren Arkeologia edo “Errepresioaren Arkeologia” izango litzatekena. Izan ere, gertuko historia arkeologikoki aztertzeak gertutasun bat dagoela esan nahi du, hots, orain dela gutxi gertatu zen zerbait denez, gaur egungo identitatean eragina duela esan nahi du, eta ezaguna zela uste zenuen hori bat-batean ezezagun bihurtzen da, eta beste perspektiba batekin ikus dezakegu (García-Raso, 2009: 61-62).

Arkeologia urte luzetan zehar historiarekin lotutako diziplina modura ikusi izan da, beti historiografiaren zientzia laguntzaile moduan, eta ahalik eta garai zaharragoa aztertu orduan eta hobeto izango litzateke (iturri idatzien faltagatik). 1960tik aurrera ordea (eta bereziki 1970etik aurrera), arkeologia zentzu berri bat hartzen hasi zen, hau da, kultura materialaren ikerketa zientifikoa dela, ez zertan historiarekin lotua, eta ondorioz, ez iturri idatziekin lotua. 1970etik aurrera Rathje-k, Schiffer-ek eta Gould-ek egindako ikerketek¹ irekiko dute batez ere bide hori, eta arkeologia historia aztertzeko bezain baliogarria dela gaur eguna aztertzeko argudiatuko dute, beren ikerketen bidez (Buchli eta Lucas, 2001: 4-5). Beraz, gizartea eta kultura materialaren arteko erlazioa kontuan

¹ Lehenak “garbology” izeneko ikerketa bultzatu zuen, zaborraren ikerketan oinarrituta. Bigarrenak, “The archaeology of us” deituriko diziplina izendatuko zuen, arkeologia eta kultura materiala gure gizartea ulertzeko erabiliko du. Hirugarrena berriz, etnoarkeologian zentratuko zen denborarekin, gaur egungo gizartearen konportamendua historiaurreko gizarteetan aplikatu daitekeela argudiatuz; ez hori bakarrik, etnoarkeologia gaur egungo gizartearen izaera ezagutzeko ere baliogarria dela argudiatuko baitute (Buchli eta Lucas, 2001: 4-5).

hartuta, arkeologiak beste zientzia batzuekin loturak bilatu zituen historiaz gain, besteak beste, antropologia edo soziologiarekin, zientzia interdiziplinarra bihurtuz, eta ideia horretatik Arkeologia Garaikidea osatzen joango zen (García-Raso, 2009: 47).

Arkeologiaren eraberritze hori eskuan hartuta, esan dugun moduan beste gai berriak lantzen zituzten ikerketak hasi ziren, hala nola, lehen aipatu dugun errepresioaren arkeologia. Adibide modura, Estatu Batuetan esklabotzaren inguruan egindako ikerketak aurki daitezke, gaur egun dagoen gizarte afroamerikarrak jasan duen errepresio bidea jorratzen duena. Eta oso urrutira joan gabe, Espainiako Gerra Zibila, Gerraostea eta Frankismo garaia aztertzen dituen arkeologia ere aurkituko dugu, gaur egungo gure gizartea erabat baldintzatu duena. Trantsizioan eraman ziren politikak, diktaduran zehar eman nahi zen ahazte prozesua aurrera eraman nahi izan zuten, baina horrelako trauma bat ez da ahazteko erraza, eta egiten diren ikerketa hauek oroimena berrezartzeko balio dezakete (García-Raso, 2009: 62). Hala ere, hau guztia aurrerago landuko dugu, lan honetan zehar jorratuko ditugun aztarnategien analisiarekin batera.

3. GERRAN BORROKATU ZUTENEI BURUZ:

Atal honekin hasi aurretik, garrantzitsua da azaltzea ikertu diren eremuak errepublikarren bandoan borrokatu zutenek okupatu zituztela. Altxatuak egon ziren eremuak ez dira oraindik ikertu, eta horregatik erresistentzia ezarri zutenei buruzko informazioa emango dugu batik bat. Beraz, ez gara altxatuen aldeko bandoen osaketan edo bideetan gehiegi sartuko, defentsa sistema horiek okupatu zituztenak izan ez zirenez, haiekin lotutako aztarna gutxi agertzen baitira lubakien barruan.

Saseta Defentsa Sisteman:

Altxamendua eman zenean, udalerrri desberdinetan armatutako pikete modukoak osatzen joan ziren alderdi desberdinetako kideen ekimenaren bidez. Baina herritar batzuk armatzen joan ziren arren, indar militarrei aurre egiteko beste indar militar bat sortu behar zuten, Eusko Gudarostea izenarekin ezagutuko dena. Azpeitian sortu zen, Defentsa Nazionalistaren Batzordeko kideek, hots, mugimendu abertzale desberdinetako kideek osatuko zuten (EAJ, ANV, Mendigoizaleak eta beste hainbat erakunde). Intendentziako kapitaina Candido Saseta izendatuko zuten, eta Irujo, Lasarte eta Monzon diputatuen kontrolpean egongo zen (Vargas, 1999: 194).

Hori guztia “Junta de Defensa de Guipúzcoa” delako antolakuntzaren barruan sortu zen. Batzorde hori altxamenduaren aurka agertu ziren erakundeek osatu zuten, eta hazten joan zen heinean, beste bi erakunde sortu behar izan ziren Gipuzkoa hobeto defendatu ahal izateko, Eibar eta Azpeitiakoa. Honela, hiru zatitan banatu zuten probintzia, guk aztertuko dugun lurraldea Azpeitiako Komandantziak babestuko zuelarik (Barruso, 1996).

Komandantzia horrek izan zuen zeregina Gipuzkoan babesik gabe geratutako lurraldea defenditzea zen, hots, ekialdetik Oria ibaiaren ezkerreko ertzera arte eta mendebaldetik Debako eskualdeetaraino. Lan hori azkar egin behar izan zuten, izan ere ordurako jadanik Gipuzkoa erdialderaino sartuak ziren, abuztuaren hasieran jadanik Tolosan inguruan baitzeuden. Horren aurrea, Donostia inguratze bidea mozteko ezarri zuten aztertuko dugun defentsa sistema. (Buces, 2016).

Komandantzia horretan borrokatze hiru probintzietatik joan ziren, hots, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik, eta abuztuaren 5 eta 31 bitartean 1.280 boluntario biltzea lortu zuten. Besteak beste, EAJ-ren batzokietara apuntatzeko zerrenda pasa zuten, eta Frente Popular egunkarian ere iragarkia jarri zuten (Buces, 2016).

Hala ere, izan zuten arazo larriena arma hornikuntza izango litzateke, geroago ikusiko dugun modura, gehienbat jendeak etxean zituen armak eta Guardia Zibilen koarteletatik ateratako armak erabiliko baitzituzten, baita Eibarretik eta Bizkaiaiko udalerrri desberdinetatik bidalitakoak ere (Buces, 2016). Horrez gain, EAJ-k armamentu txekoslovakiarra ere lortu zuen, geroago azalduko dugun modura.

Aurrean, Cayuela komandanteak gidatutako tropak izango zituzten, gehienbat erreketeez osatuta egongo zirenak. Defentsa Sistema honetara iritsi arte, erraztasun handiz lortu zuten Nafarroatik abiatuta Oria bailarako udalerrri gehienak hartzea, Donostia konkistatzeko helburuarekin (Almorza eta Bucés, 2016: 22-23).

San Pedro mendia

Hemen, aurreko batailan ez bezala, nazionalistez gain beste hainbat batailoi egongo ziren borrokan, besteak beste Araba batailoiarekin (EAJ) batera, Leandro Carro (PCE) eta Bakunin (CNT) batailoiak egongo ziren frankisten aurrean, altxatuek alemaniar nazien eta italiar faszisten laguntza izango zuten bitartean (Ayán eta Santamarina, 2016: 16-18). Toki honetan batez ere Araba eta Leandro Carron borrokatzen zuten soldaduak

arituko ziren lubakiak egiten eta fortea defenditzen, lan garrantzitsua zena ez baitzegoen babes naturalik. Batailoi horien artean posizio estrategiko garrantzitsuenak hartuko zituzten, San Pedro eta Las Minas artean. Bakunin batailoiak berriz Txibiarteko posizioak defendituko ditu bien bitartean (Azkue, 2004: 203).

Araba batailoia 1936ko irailaren erdialdean sortu zen, besteak beste euskal kontrolpean zeuden lurraldeetatik joan ziren arabarrak, eta altxatuen zonan zeuden beste batzuk, Alto Nervion lurraldeko hainbat bizkaitarrek ere osatua, eta gipuzkoar gutxi batzuk ere hartuko zuten parte. Komandanteak Antonio San Martin, Francisco Barañano eta Marcos Orueta izango ziren, hurrenez hurren (Vargas, 1999: 207).

Leandro Carrori dagokionean, 1936ko urrian sortu zen, Urduñara bidalitako miliziano gazteek osatuta, Amurrio-Urduña lerrora bidaliak izan zirenak zehazki. Beraz, Amurriokoak ziren batailoi hori osatu zuten asko, baina ondoren jende ugari biltzen joan zen, Dos Caminos eta Bizkaiako meatzari gunee desberdinetatik joandako jendearekin. Apirilaren 26an Arabako frontera joan ziren eta bertan Araba eta Bakunin batailoiekin elkartu ziren 5. Brigada deiturikoan, eta Jose Paneda Santaflorientina izango zen buru (Herrero, 2016).

Bakunin batailoia Gipuzkoan borrokatu zuten galiziarrek osatu zuten, eta urrian Amurrio-Orozko sektorera bidali zituzten. Batailoiko komandantea Isaac Olmos izango litzateke, eta Komandante intendentea Julio Martinez “Lenin” (Balchada, 2016). Batailoi honi buruz esan behar da gatazkak izan zituela batez ere Araba batailoiarekin, besteak beste Eusko Jaurlaritzaren eta CNT-ren artean izaten ziren tirabiren ondorioz, batailoia zegoen erreformatorioa inguratzerara iritsi zirelarik nazionalistak. Olmos komandanteak konpainiak bertatik joango zirela egin zuen mehatxu eta 1937ko maiatzean utzi zuten tokia, Sollube mendira mugitu ziren (Balchada, 2017).

4. AZTARNATEGIEN DESKRIBAPENA:

Lanaren atal hau deskripzio huts bat izango da, bertan Saseta Defentsa Sistemaren eta San Pedro mendiaren ezaugarriak azalduko ditugu, bertara egin diren indusketa kanpaina desberdinetan aurkitutako materialak azalduz. Horrek, ondoren lanaren muinera eramango gaitu, hots, bi lubaki sistema horietan aurki daitezkeen berdintasun edo desberdintasunak azaltzera. Aldez aurretik, esan beharrekoa da bietan egin diren

kanpainak oso berriak direla eta hasierako fase batean daudela, beraz galdera ugari oraindik erantzuteko zailak dira.


Saseta Defentsa Sistema:

Kronologia:

Gerraren hasieran eman zen bertako bataila, eta 34 egun iraun zuen, 1936ko abuztuaren 16an hasi eta 1936ko irailaren 19ra arte zehazki. Beraz, gerra hasi eta hilabetera eman zen, bertara iritsi arte izango zuten erresistentzia handiena aurkituko zutelarik (Almorza eta Bucos, 2016: 14).

Ingurunea:

Andatzako mendigunea litzateke, Belkoain mendialdetik hasi eta Andazarrateko gainera arte. Paisaian ez da batailaren arrasto handirik gelditzen, gerraren ondoren zuhaitzak landatu ziren eta basoak lubaki sistemaren zati handiak jan ditu. Lurralde horiek Aduna, Asteasu eta Zizurkil udalerrien artean banatzen dira (1. Irudia) (Almorza eta Bucos, 2016: 32).




1. Irudia (Almorza eta Bucos, 2016: 70-72), Saseta Defentsa Sistemak hartzen duen lurraldea.

Materialtasuna:

Hiru kanpaina egin dira lubaki hauetara, 2013an, 2014an eta 2015ean, baina bigarren urteko kanpaina hori ez zen indusketan oinarritu, inguruko azalaren azalera aztertuz, inguruko azalaren azalera aztertuz, inguruko azalaren azalera aztertuz. Lehen eta hirugarren urteetan egin ziren kanpainen bi mendi desberdinen inguruak aztertu ziren, Belkoain eta Zarateaitz hurrenez hurren.


2013ko kanpaina: Lehen esan dugun modura, lehen urteko kanpaina hau Belkoain mendiaren inguruan egin zen, eta bertan hiru gune desberdin aztertu zituzten, “okupazio-fasea laburra izanik, ikertutako eremuaren azalera handia izateak eta landaredi-estalkia trinkoa izateak ondoz ondo egindako arkeologia-kanpainen lanak baldintzatu zituen, horregatik, alde aurretik zehaztutako sektoretara mugatzea eta hondakin metalikoak topatzeko metalen detektagailua erabiltzea erabaki zuten” (Almorza eta Buces, 2016: 71). Zehazki, hiru sektoretara mugatu ziren arkeologia-kanpaina horiek (2. Irudia).



2. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 72), 2013ko kanpainaren interbentzio guneak

Lehena, Belkoain mendiaren mendebaldera egongo litzateke, 190 metro ingurura, eta bertan harresi-egitura baten hondakinak aurkitzen ziren. Harresi hori “neurri txiki eta ertaineko kareharrizko harresi irregularra” da, batez beste 90 cm inguruko altuera duena, eta lurreko arroka naturalaren gainean eginda dago (Almorza eta Buces, 2016: 72-73). Gertu, txabola baten hondakin arkitektonikoak ere aurkitu ziren. Bertan, ez zen aurkitu ekintza belikoen aztarnarik, beraz ezin da baieztatu lubaki funtziorik izango zuenik, baina

kokapen estrategikoa dela eta (Oria ibaiko bailara kontrolatu daiteke bertatik), parapeto gisa erabili zitekeela ondorioztatu zen (3. Irudia).



3. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 73), 2013an berreskuratutako harresia.

Bigarren sektorea, Mendabieta inguruan dago, Mareako bide gurutzea 500 metrora aurkitzen da eta Andoaingo Sorabilla auzoko baso pistatik gertu. Gune hau lehen aipatu dugun txabolarekin lotzen duen bide bat dago, gerran erabilgarria izan zitekeena elkarren arteko komunikazioa izateko. Hemen aurkitzen den bidea lehen sektorekoarekin modu perpendikularrean lotzen da, eta baso pistarekiko paraleloan doa (Almorza eta Buces, 2016: 73-74). Hala ere, lehen sektorean bezala, bertan ez zen gerrarekin lotutako materialik aurkitu, baina berriro kokapen estrategikoarekin lotuta, Gerra Zibileko lubakiak izan zitezkeela ondorioztatu zen.

Hirugarren sektorea lehen aipatu dugun Marea inguruan aurki daiteke, Txintxorrigain tontorretik gertu, 426 metroko altitudetan. Bertan, 100 metro inguru dituen lubaki-tartea aurkitu zen, eta 55 metro inguru induskatu zituzten (4. Irudia). “Oinplanoan lau angeluko eta U formako profila duen lubakia zehaztu ahal izan dute [...] helburua Belkoain Basopeta ingurunetik defendatzea” (Almorza eta Buces, 2016: 74-75) litzatekela diote autoreek.


Aduna eta Zizurkil udalerrietatik mendira doazen bideak kontrolatzeko gune egokiena zela ondorioztatu zen. Aurreko bi sektoreetan ez bezala, hemen Gerra

Zibilarekin zuzenean lotu daitekeen aztarnak aurkitu ziren, zehazki 222 bala-zorro² eta 9 kargadore, denak jatorri txekoslovakiarra duten Mauser VZ-24 fusilarenak lirateke (5. Irudia) (Almorza eta Buces, 2016: 74-75).



4. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 78), 2013ko indusketetako hirugarren sektorea

² Izatez guk bala modura ulertzen duguna bi zatitan banatzen da: alde batetik bala egongo litzateke, hau da, armatik tirokatuta ateratzen dena; eta bala-zorroa, barnean polbora izan ohi du, eta armak honekin sortzen duen inpaktuaren bidez ateratzen da bala tiro modura, bala zorroa tiroa egin duen pertsona edo armaren alboan erortzen da. Beraz, bala-zorro asko badaude, bertatik tiro asko egin diren seinale da; bestalde, bala asko badaude, bertan tiro asko jaso dituztela esan nahiko luke.



5. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 76), Mauser txekoslovakiarren kaskilloak.

Nahiz eta hiru sektoretatik bakarrean aurkitu ziren gerraren ebidentziak, posible da honen bidez altxatuak Belkoainera nondik sartu ziren ondorioztatzea. Honen ondoren, erresistentziak atzera egin behar izan zuen, Andatzara, Andazarratera eta Zarateaitzera (ondoren azalduko dugun kanpaina) eta bertan ezarri behar izango zuten defentsa berria (Almorza eta Buces, 2016: 78).

2015eko kanpaina: Urte honetan Zarateaitz ingurura mugitu ziren jarduera arkeologikoak, eta Belkoainen bezala, jatorri antropikoa duten egiturak aurkitu ziren (harresi-egiturak) (6. Irudia). Lubakiak Zarateaitzeko hegoaldean aurkitzen dira, 450 eta 475 metro arteko altitudean, hala ere, eremu honetako lubaki eta egiturak baso bateko zuhaitzek estaltzen dute. Hemen bi sektore banatu zituzten, baina indusketak lehen sektorean soilik egin ziren, bigarreanean landaredia garbitu zuten soilik (Almorza eta Buces, 2016: 80).

Lehen sektore horretan, lehenik landaredia garbitu zuten (UE 101) eta marroi koloreko lurra aurkitu zuten (UE 102), bertan aurkitu ziren material gehienak. “XIX. eta XX. mendeetako material beliko ugari aurkitu zen, XX. mendeko su-armen 88 zorro, era bereko bala bat, *shrapnel* bala bat, XIX. mendeko berunezko bala bat, *Lefaucheux* erako bala bat eta *Minnie* erako bala bat” (7. Irudia). Beraz, material nahiko zaharra ere aurkitu zen gunen honetan, eta bi irakurketa eman daitezke. Lehenik, Gerra Karlistetako materialak izan daitezke (ezaguna da hirugarren gerra karlistan bertan ibili zela Santa

Kruz apaiza³), edo bestela, arma faltaren ondorioz, askok beren etxeko arma zaharrak hartuta joan zirela lubakiak defenditzera (Almorza eta Buces, 2016: 81-83).



6. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 82), Zaratehaitzeko harresia.




7. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 85), Zaratehaitzen aurkitutako objektuak.

Bigarren sektoreko lubakietan indusketarik egin ez arren, harresiaren aldaketa bat dagoela ikus daiteke, eta errepublikar soldaduek gerrara egokitu zutela ondorioztatu


³ Santa Kruz apaizak hirugarren gerra karlistan gerrilla bat osatu zuen, eta Gipuzkoako mendietan zehar ibili ziren. Egin diren beste ikerketa batzuen arabera, inguru horretan ibili zirela ezaguna da, Zarateaitzek duen kokapen estrategikoagatik.

daiteke. Hala ere, ezin da ezer baieztatu, lubakiaren ikerketa sakona egin gabe ezin baita jakin norabide horren aldaketa noiz, nola edo zertarako eman zen (Almorza eta Buces, 2016: 84). Bestalde, ezin da jakin harresi horiek gerra garaian eraikiak izan ziren edo lehenago, baina gerra garaian erabiliak izan zirela ondorioztatzera iritsi gaitzke.


Horretaz gain, aipagarriak dira lubakietatik gertu dauden hiru pago, bakoitzak bere alboetako batean grabatuak dituztelarik. Ez dago horiei buruzko testigantza edo inolako beste iturririk, beraz suposizioetan oinarritutako interpretazioak besterik ezin dira egin. Hala ere, hiruetan berdintasun bat ikus daiteke, eta hori “P.O.” letrak agertzen direla litzateke. Baina inisial horiek agertzeak ez du esan nahi pertsona baten firma direnik, eta hori idatzita dauden kokapenean oinarrituta esaten dugu, izan ere, zuhaitz bakoitzean forma desberdinean idatzita dago, horregatik orientazioa seinalatzeko letrak direla ondorioztatu zen (Punto de Orientación) (8, 9 eta 10. Irudiak) (Almorza eta Buces, 2016: 87).



8. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 88), lehenengo zuhaitza.



9. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 89), bigarren zuhaitza.



10. Irudia (Almorza eta Buces, 2016: 90), hirugarren zuhaitza.

San Pedro mendia:

Kronologia:

1937ko maiatzaren amaieran eta ekainaren hasieran emango dira bertako batailak, hau da, Euskadi erori aurretik emandako azkenetako bataila izango zelarik, justu burdin hesiaren aurretik (Ayán eta Santamarina, 2016: 19).

Ingurunea:

San Pedro mendia izango da, bertako ermitatik gertu, Arrastaria-Lezama artean, Amurrioko udalerrian, Araba eta Bizkaia banatzen dituen mugatik gertu. Mendian ilargi-paisaia nabaritzen da, aireko bonbardaketen ondorioz sortutako kraterrak aurkituko direlarik mendian zehar (11. Irudia) (Ayán eta Santamarina, 2016: 30).



11. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 23), definitutako hiru sektoreen irudia.

Materialtasuna:


San Pedro mendiko trintxeretara kanpaina bat egin zen 2016an eta hiru sektore aurkitu ditzakegu. Lehen Lezamako lurretan, San Pedro mendiaren tontorretik 320 metro iparraldera, ermitara eramaten zuen bide zaharraren gainean. Bigarrena Aloriako lurretan egongo litzateke, eta mendia ekialdetik mendebaldera gurutzatzen du. Azkenik, hirugarren sektorea ere Lezaman aurkitzen da, eta lurren jabeak abeltzaintzarako erabili dituen arren, oraindik zig-zag forma egiten dutela nabaritu daiteke lubakietan (Ayán eta Santamarina, 2016: 25).

Lehen sektorean: gotorleku baten aztarnak aurkitu ziren, eta lubakien formak ere nabaritu zitezkeen lurrazalean (12. Irudia). Sektore horretan aurkitu ziren aztarna material gehien, 587 objektu aurkitu zirelarik (%70,72a). Gotorlekuari dagokionez, 2x2ko oin-planta bat duela esan behar da eta hiru horma ditu, hego-mendebaldera, iparraldera eta

ipar-ekialdera begira. Ez du teilaturik, baina hormen gainean nabaritzen da kendu egin zitzaiola; eta sarrera ipar-ekialdeko horman izango du, lubakiekin zuzenean lotzen dena (13. Irudia). Gotorleku barneko lurrak kentzean estruktura lohiz betetzearen prozesua ikusten da, eta estruktura beraren zatiak ere nabaritzen dira, zementu zatiak agertzen direlako. Horrez gain, metraila zati asko ere aurkitu ziren bertan (Ayán eta Santamarina, 2016: 26-27).



12. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 27), gotorlekuaren argazkia.




13. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 29), lehen sektorearen argazkia goitik.

Gotorlekuaren inguruko lubakietan ere metraila asko aurkitu zen, orokorrean, barruan zein inguruan egin ziren indusketetan aurkitu ziren materialen %61 metraila zatiak ziren (14. Irudia). Lur mailan behera egin heinean metraila kantitatea ere jaitsi egiten da, eta lur originalean %16-23 arteko portzentajearekin aurkitzen gara. Bestalde, gotorlekuan aurkitzen den munizio kantitatea gora egiten du, eta unitate horretan aurkitutako materialen %28,57a kaskilloak izango lirateke. Sarrerako lubakian kaskillo portzentaje bera aurkituko litzateke eta jaurtigai osoak ere aurkitzen dira, baita kargadore oso bat ere. Horrez gain, egunerokotasuneko material ugari ere aurkitzen da (beira, latak, uniforme zatiak eta abar) (Ayán eta Santamarina, 2016: 28-30).



14. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 29), metraila zatiak.

Bestalde, munizioaren bi kontzentrazio gune nagusi egongo dira, bat gotorlekuaren sarreran eta ekialdetar muturreko lubakian. Hala ere, aipagarria da oso ikuspen gutxiko guneak direla, baina, puntu horiek lubakietako bi puntu baxuenak dira, beheraka doazen bi aldapa bertan bukatzen baitira, beraz grabitatearen ondorioz kaskillo guzti horiek horra erori zirela esan daiteke. Horrez gain, esan beharrekoa da aurkitu diren kaskilloen laurdena ezin izan direla identifikatzeko gai izan, baina gainerakoen artean gehienbat alemaniar eta txekoslovakiar jatorriko munizioa dagoela jakin ahal izan da, baita sobietarra, estatubatuarra eta poloniarra ere (15. Irudia) (Ayán eta Santamarina, 2016: 31-32).




15. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 33), aurkitutako munizioaren jatorria lehen sektorean.

Txekosloviakiar munizioa aurkitzea ez da arraroa, gerra hasi eta gutxira armamentua merkatu beltzaren bidez iritsi baitzen, eta iparraldeko fronteetan gehien erabili zen armamentua izan zen. Baina altxatuek aurrera egin heinean, armamentu hori erabiltzen hasi ziren eta horregatik bestelako testuinguruetan ere aurkitu daiteke (Belchiten adibidez). Alemaniar jatorriko munizioari buruzko bi hipotesi bultzatu dituzte: lehena, gotorlekuaren defendatzaileek aurretik nonbait lapurtutako armak izan zitezkeen, edo bestela, alemaniar kontrabandistek ezkutuko bideetatik errepublikarrei saldutako armak izan zitezkeen (Ayán eta Santamarina, 2016: 32-33).

Lubaki horien berezitasun modura, esan beharrekoa da harriaren gainean landutakoak izan zirela, besteak beste mendebaldetik ekialdera doan lubakietan hiru maila ikusten baitira: erdian maila baxuena eta bi aldeetan altuenak (tiro egiteko eta babesteko edo atsedean hartzeko). Harriaren gaineko lanketa hori gotorlekuan ere ikusten da, eta zementuarekin berdinduta dagoela, metrailadorea ezartzeko (Ayán eta Santamarina, 2016: 35-36).

Bigarren sektorean: 50 metroko luzera inguruko lubakia da, eta borobil formako artilleria arin edo metrailadore baten kokapena izan zitekeen kokagunea du. Bertako indusketa oraindik amaitu gabe dago, baina jadanik 243 objektu aurkitu dira bertan. Lubaki horietan babeslekuak ere aurki daitezke, tiratzaileentzako izan zitekeena edo

obserbazio postua. Ekialdetik datorren lubaki lerroan hainbat babesleku ikus daitezke, materialak zein tropak babesteko (16. Irudia) (Ayán eta Santamarina, 2016: 37-39).



16. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 37), bigarren sektorea goitik ikusita


Lubakietan aurrera jarraituz, tiro egiteko kokagunea egongo litzateke, gune zirkular eta zabala dena. Bertan babesleku bat ere aurki daiteke, baina besteetan ez bezala, honek ez du estalkirik. Kokapenaren ikusgaitasuna bikaina da, La Barrerillako errepidearen eta Urkabustaiz eta Alto Nervión elkartzen dituen bidea kontrolatzen baititu. Kokagune honetatik ateratzeko bidea ipar-mendebaldean aurkitzen da, soldaduek egiten zuten ibilbidea babestuta egiteko (Ayán eta Santamarina, 2016: 39-40).

Gune honetan gerra materialen berrerabiltzea nabaritzen da, su aztarnak eta bestelako objektu batzuk aurkitu baitziren (6 bala, 3 kaskillo eta 150 iltze). Hainbeste iltze aurkitu izanak kaxak erretzearen ondorio izan daitekeela uste da, baina deigarria da horrelako posizio batean sua egitea. Horretaz gain, metraila portzentaje baxuak aurkitu dira eta, lehen sektorean ez bezala, jatorrizko arroka iristen den heinean, metraila portzentajeak gora egiten du (Ayán eta Santamarina, 2016: 40-41).

Bigarren sektore honetako beste datu garrantzitsu bat bala portzentaje altua litzateke, nahiz eta hainbat kaskillo aurkitzen diren. Hala ere, bala horiek indar gutxirekin talka egin dutela dakigu, beraz, distantzia ertain edo luzera egindako tiroak direla izan daiteke (17. Irudia) (Ayán eta Santamarina, 2016: 41).

Egunerokotasuneko material gutxi batzuk aurkitu dira bertan, aipagarriena metalezko lata bat litzateke “LFEX” logotipoa irakurgarri delarik, “OLFEX” enpresa farmazeutikoaren lata bat litzateke. Hala ere, ez da material “zibil” gehiago aurkitu, agian defentsarako soilik prestatutako lubakiak izan zitezkeelako (18. Irudia) (Ayán eta Santamarina, 2016: 42).

Azkenik, sektore honetako lubakiek duten berezitasuna arrokan egindako esturktura berezi batean egongo litzateke. Izan ere, borrokarako ez ezik, lubakiak bizitoki eta almagazak ziren, eta altxatutako ejertzitoaren aurka borrokatzeaz aparte, uholdeen arazoa ere bazuten. Horretarako ura bideratzeko kanalak egin zituzten, gauzak gordetzen zituzten tokiak eta lo egiten zuten tokiak ahal zen lehorrenak mantentzeko (19. Irudia) (Ayán eta Santamarina, 2016: 42).




17. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 44), bigarren sektorea eta aurkitutako objektuen grafika.



18. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 42), “OLFEX” enpresaren lata zatia.



Abrigo en nicho debajo del parapeto



19. Irudia (Ayán eta Santamarina, 2016: 43), babeslekuak ez uholderik izateko egindako kanalak eta azpian hobeto ulertzeko irudi bat.

Ikuspegi orokorra: hirugarren sektorea ez zen induskatu, baina lehen eta bigarren sektoreen ikuspegi orokor bat emateko honako datuak ditugu: 830 objektu 20 unitate estratigrafikotan, 17 jaurtigai osorik (bala eta kaskilloa), 66 bala, 108 kargadore, 193 kaskillo, 208 metraila zati, alanbre-hesien 6 zati, 17 beira zati, 18 hezur zati (txerri eta ardi hezurak), 101 kontserba laten zati eta garaiko plastiko zati batzuk. Orokorrean, gerra materiala (balak, kaskilloak, metraila eta abar) aurkitutako objektuen %71,32a izango litzateke eta egunerokotasuneko materiala edo material zibila %17,1. Desberdintasun honen aurrean bi aukera daude: lehena, metalezko materialak hobeto kontserbatzen direla, edo bestela, gerra oso bizia izan zela, okupazio denbora laburrekin (Ayán eta Santamarina, 2016 :44-45).

5. KONPARAKETA:

Lanaren atal honetan bi aztarnategien arteko konparaketari ekingo diogu, zein antzekotasun eta zein desberdintasun aurki daitezkeen azalduko dugu, 1936ko udara eta 1937ko udaberrira arteko denbora labur horretan. Hemen beraz, deskribatutako bi aztarnategien analisia egingo dugu eta horren bidez Gerra Zibilari buruzko hausnarketa batera iristen saiatuko gara, denbora epe labur horretan eta kokapen geografiko desberdinean gerrak izan zuen garapena ikusi ahal izango dugularik.

Kokapena:

Lehenik eta behin, kokapenari eta inguruneari dagokionez, Saseta Defentsa Sistemak mendigune handi bat hartzen duela esan behar da, luzera handia okupatzen duelarik. Sistema guztia gerraren ondoren sortutako basoaren azpian gordeta dago, eta ez da gerraren aztarnarik ia nabaritzen lurrazalean, trintxera modura erabiliko diren hormak bakarrik. Gainera, esan behar da mendi horietan babes naturalak ere izango zituztela, mendiko harkaitzak babesleku modura erabiltzeko aukera behintzat bazuten. Horrez gain, bereziki 2015eko kanpainari dagokion gunetik, hots, Zaratehitzeko tontorraren ingurutik, mendirako bidea igarotzen da, eta jende asko bertatik pasa eta kaskilloak, edo aurkitzen zuen guztia, etxera eramaten zuen (oroigarri modura). Horrez gain, gerraosteko haurrek ere hartzen zituzten, udalek burdin hori berrerabiltzen baitzuten, beraz, aurkitutako burdinazko materiala eraman ezkeru umeek “propinak” jasotzen zituzten.

San Pedro Mendian aldiz, aipatu dugun “ilargi paisaia” ikus daiteke, abiazioak egindako bonbardaketen ondorio izango direna. Horrez gain, sistema hori ez dago basoak janda, eta larre ireki bat da, muino batean kokatua; beraz, orografiak ez dio defentsari laguntzarik ematen, soldaduek eraikuntza sistema konplexuago bat garatu behar izan zutelarik. Izatez, mendi muino bat da, zelaia dena, eta Saseta Defentsa Sistemari ez bezala, ezin dituzte bertako arroka naturalak aprobetxatu defenditu ahal izateko. Horregatik, hutsetik hasitako lubaki sistema bat eraiki behar izan zuten, eta babesleku nagusi modura gotorlekuak eraikitzeko beharra ere bazuten, gauzak gorde eta babes indartsuagoa izatekotan. Hala ere, horrek erakusten digun gauza bakarra erresistentzia ezarri zutenek ingurura zuten egokitzapen beharra da, toki batzuetan formazio naturalak erabil daitezkeen bitartean, beste toki batzuetan babesleku eduki ahal izateko zerotik hasi eta ingurura egokitu egin behar baitute.

Gerran borrokatu zutenak:

Bestalde, bi tokietan borrokatzen aritu zirenen inguruan, lehenago esan dugun bezala Andazarrateko mendigune horretan Azpeitiako Komandantziatik bidalitako pertsonak arituko ziren borrokan, gerra hasi eta berehala boluntario apuntatu zirenak, eta oso prestakuntza gutxirekin bidaliak izan zirenak, esperientziadun ofizial militar gutxi izango zituzten prestakuntza hori aurrera eramateko. Gainera, esan behar da, kronologiarekin lotuta, gerrako lehen hildakoak bertan izan zirela (Almorza eta Buces, 2016: 38-39 eta 63). San Pedro Mendian berriz, batailoiak definituago daude, talde bakoitza non sortu zen eta nondik nora ibili ziren jakin daiteke, prestakuntza gehiago jasota zuten, eta bakoitzaren korrante ideologikoa ere jakin dezakegu⁴. Gainera, bigarren fronte horretan esperientzia gehiago zuten soldaduak aurki daitezke, besteak beste Bakunin batailoia Gipuzkoan borrokatu zuten galiziarrek osatzen baitzuten, eta beste batailoietan ere bertan borrokatu zuten pertsonak aurkituko genituzke. Hala ere, gerraren garapenez gain, beste arrazoi bat egon daiteke bertan egon ziren soldaduen horren inguruan, besteak beste Saseta Defentsa Sistemari dagokionean. Izan ere, Oria bailarako lurralde hori guztia gehienbat EAJ alderdiaren eraginpean zegoen, beraz ulergarria izan daiteke Azpeitiako Komandantziak bidaltzea tropak bertara, Donostiako inguruetan

⁴ Informazio hori jakiteko, besteak beste, batailoi bakoitzak ordezkatzeko duen alderdia erabili dezakegu, Saseta Defentsa Sistemaren kasuan Azpeitiako Komandantzia euskal nazionalistek kontrolatuko dutelarik, San Pedro Mendian EAJ, PCE eta CNT-ren presentzia ikusi daitekelarik. Hala ere, Azpeitiako Komandantziako soldaduen artean, boluntarioak zirenez, ezin da ziurtasunez jakin zein korrontetako pertsonak ziren, besteetan ziurrenik definituago zegoen bitartean.

(Oiartzunera bidean) alderdi ezkertiarrek antolatutako soldaduek borrokatuko zutelarik. Hala ere, azaldu behar den beste gauza bat, kronologiarekin eta antolakuntzarekin lotuta, Saseta Defentsa Sistema defendatu behar zutenean Eusko Jaurlaritza sortzeko zegoela, eta Arabara iritsi zirenerako jadanik sortua zegoela, eta Euzko Gudarostearen gainean indar handia hartu zuela.

Erabili zuten gerra materiala:

Gerra materialari dagokionean, armamentu txekoslovakiarraren presentzia bi aztarnategietan ez da arraroa, gerra hasi eta gutxira merkatu beltzaren bidez jatorri horretako arma asko iritsi baitziren, eta lehen esan dugun bezala, iparraldeko fronteetan gehien erabili ziren armak izan ziren. Baina txekoslovakiar jatorriko armamentu horretatik haratago begiratu ezker, desberdintasun handiak ikus daitezke bi aldeetan artean. Saseta Defentsa Sistema ezarri zenean, txekoslovakiar jatorriko armamentu hori zen iritsi zen modernoena, baina hortik aurrera, Guardia Zibilen kuarteletatik ateratako edo bakoitzak etxetik eramandako armak erabili ziren. Horrek azal dezake Gipuzkoako fronte horretan aurkitzen diren XIX. mendeko armen presentzia hori (nahiz eta karlistaldietakoa izan daitekeen). San Pedro Mendian ordea, jatorri anitzetako armak aurkitzen dira (alemaniarrek, sobietarrek, estatubatuarrek eta abar), eta horrek erakusten digu gerrak aurrera egin ahala atzerriko beste herrialdeek izan zuten parte hartzea. Horrez gain, metrailaren presentzia ere nabaria da bertan, esan dugun “ilargi paisaia” hori eragingo zuten bonbardaketen ondorioz. Horrek ere alemaniar abiazioaren lana erakusten digu, Franco eta bere ejertzitoaren alde borrokatuko zutelarik (eta etorkizunean emango zen Bigarren Mundu Gerrarako prestakuntza modura, agian).

Gainera, esanguratsua da ere bi aldeetan aurkitutako materialen artean, ia guztia material belikoa izatea, eta ez material zibila. Horrek lubakiak zuten izaera azaltzen baitigu, hots, borrokarako tokiak ziren, ez bizitzeko tokiak. Bai Saseta Defentsa Sistemari eta bai San Pedro Mendian lubakiak tiro egiteko soilik erabili zirela ondoriozta dezakegu, eta egunerokotasuneko gauzak egiteko (jan, lo egin, idatzi) beste egonleku batzuk erabiliko zituzten seguruenik. Hala ere, hori ikerketa honetatik ateratako hausnarketa pertsonala litzateke, oraindik asko dago ikertzeko, eta etorkizunera begira posible da “zabortegi” batzuk aurkitzea, ziurrenik askoz material zibil gehiago izango dutenak, eta lubakien ikuspegi beliko hori aldatu dezakete.

Orokorrean:

Orain arte azaldutako horrek guztiak hausnarketarako hainbat bide irekitzen dizkigu. Lehenik eta behin, gerraren garapen azkarra izango litzateke, gerra hasi eta denbora gutxira armamentu oso modernoa erabiliko zelarik gerran zehar. Oso esanguratsua da, izan ere European zegoen herrialde atzeratuetakoa bat izanik, hasieran armamentu zaharkitua erabili arren, urtebete baino gutxiago pasata oso berria zen armak erabiltzen hasi baitziren⁵. Beraz, esan dezakegu, Espainian eman zen gerra izan arren, interes internazionalak nabariak zirela, eta presentzia hori garbi ikusten dela armamentu aldetik, bai Saseta Defentsa Sistemari baita San Pedro mendian ere.

Horrek beste hausnarketa batera eramaten gaitu, izan ere, Espainiako Gerra Zibila izan zela esaten dugun arren, partehartze internazionala nabaria da, soldadu aldetik baino gerra material aldetik gehiago izan bazen ere. Esan bezala, armak jatorri ugari zuten, txekoslovakiarak, alemaniarak, estatubatuarak edo poloniarak aurkitzen baititugu. Beraz, ez zen gerra zibil soil bat izan, edo familien arteko gerra huts bat. Europako gainerako herrialdeek ere zer esana zuten gerra horretan, eta ahal izan zuten heinean laguntza eman zuten (gehienbat alemaniarrek altxatuen bandoarentzako).

6. ARKEOLOGIA ZERTARAKO?

Hasteko, esan behar da iturri idatzietan bilatzen aritu ondoren, bai Saseta Defentsa Sistemari baita San Pedro Mendiari dagokionean, informazio gutxi aurki daitekeela. Libururen bat edo bestean aipuak agertzen dira, baina inon ez da oso sakonki aztertzen, arkeologia sartu den arte. Besteak beste, “gerran borrokatu zutenei buruz” atalean batailoiei eta horiek osatzeko eman ziren prozesuei buruz jardun gara, liburu edo artikuletan gai hori jorratzen duten atal gehiago daudelako. Eta hala ere kasu batzuetan ez da gehiegi ematen, Bakunin Batailoari buruz adibidez, ez baitago informazio gehiegi, eta dauden idazkiek ez dute hitz on askorik beren inguruan.

Arkeologiaren eta iturri idatzien arteko arazoak aspalditik datoz, hasiera batean arkeologia historiografiaren zientzia laguntzaile modura kontsideratua izan da, orduan eta

⁵ Txekoslovakiar eta alemaniar armamentua nahiko berria zen, zaharrenak 1933 eta 1935 artean fabrikatuak izango ziren. Gerra honekin aukera bikaina sortu zitzaion arma berri horiek benetako gudu batean erabiltzeko. Bestalde, estatubatuarren armak zaharragoak izango ziren XX. mendearen lehen bi hamarkaden artean fabrikatutako armen aztarnak aurkitu baitira (Ayan eta Santamarina, 2016: 34).

iturri idatzi gehiago izan, gero eta arkeologiaren behar gutxiago izango zelarik. Iturri idatziekiko konfiantza handia zegoen, iraganetik zuzenean hitz egiten ziguten aztarnak zirelako, eta arkeologiaren benetako garrantzia historiaurrera mugatzen zen (Moreland, 2013: 2). Joera hori aldatzen joan zen eta iraganeko edozein gizarteren portaera ulertzeko tresna modura ulertzen hasi ziren arkeologia, gaur egunera arte iritsi diren aztarna horiek begiratu, eta haiekin alderatuta egiten ditugun antzeko ekintzak ikertuz. Iturri idatziek zuzenean hitz egiten dute, objektuak berriz isilak dira; eta horrek iturri idatziek zehaztasun gehiago duten sentazioa ematen du. Denborarekin, hitzen eta gauzen erlazioa aldatzen ari da, eta diziplina-arte hori gero eta onartuago dagoela dirudi (Moreland, 2013: 4-6).

Gerra Zibilari dagokionean, arkeologiari buruz asko errepikatzen den galdera bat “arkeologiak zertarako balio du? Horri buruz asko idatzi da” izaten da. Hain zuzen ere asko idatzi da, gertu dugun gertakari bat den heinean, ahozko testigantzak eta testuak jaso ahal izan ditugu gaur egunean, baina bakoitzak modu desberdinean kontatzen du, bakoitzak ikuspuntu desberdin bat emanez, eta iturri bakoitzak gertakari berdineko oroitzapen desberdinak kontatzen ditu. Beraz, subjektibotasunez beteta dagoen gertakari bat dela esan daiteke.

Ahozko iturriekin ere antzeko zerbait gertatzen da, bakoitzak ikusitakoa kontatzen du, bizi izan zuena. Gure ikerketa arlora bideratuko badugu, lubakietan borrokan aritu zen batek, hor bertan ikusten zuena kontatuko digu, egunerokotasuna, zer jaten zuten, nola bizitzen zuten momentua. Bestalde, goi kargu militar batek, gerraren planifikazioa nola izan zen kontatu dezake, baina agian ez du lubaki barruko egunerokotasun hori hain ongi ezagutuko. Bakoitzak bere modura bizi izan zuen gerra, bere posiziotik, bere lagunartetik, bere familiarik edo bere ikuspuntu politikitik; eta kontuan izan gabe, gerraren ondoren biziraun zuten asko ondoren isildu zirela, edo ez zirela hitz egitera ausartu. Gainera, ikerketa psikologiko batzuen arabera, gertakizun traumatikoak distortsionatu egiten direla esaten da, askotan ondoren kontatu denarekin, gertakizunaren mitifikazio bat ematen delarik (González Ruibal, 2016: 36)⁶.

Horrez gain, eta sarreran esan dugun bezala, gerra duela 80 urte gertatu zen, eta hura bizi zuten asko bertan hiltzeaz gain, besteak denborarekin zahartzen eta hiltzen ere

⁶ Southwick, S. M., Morgan, C. A., Nicolaou, A. L. eta Charney, D. S. (1997), Consistency of memory for combat-related traumatic events in veterans of Operation Desert Storm, *American journal of Psychiatry*, 154(2): 173-177-tik ateratako ikerketa erabiltzen du González Ruibal-ek.

ari dira. Eta bestela, haien seme-alabak dira kontaktzen dutenak, arazo berri bat sortuz: ahoz-ahoko kontaktetan gertatzen diren distortsioak (pasarteak ahaztea, beste modu batean ulertzea eta abar). Adibidez, Saseta Defentsa Sistemaren egin zen ikerketan jasoziren ahozko testigantzak eman zituztenen artean, zaharrenak 15 urte zituen gerra hasi zenean eta gainontzekoek 11 urte baino gutxiago zituen, kasu batzuetan jaiotzerako jadanik gerraostea zelarik (Almorza eta Buces, 2016: 109-130). Azken finean, nahiz eta ahozko iturriak oso baliotsuak izan, askotan oso zaila izaten da xehetasun guztiarekin oroitzea, eta aurreko paragrafoan esan dugun moduan, oso ikuspuntu pertsonal eta subjektiboa ematen duen iturria da.

Horrek ez du esan nahi zerbait txarra denik, alderantziz, Gerra Zibila trauma asko sortu dituen gertakaria den heinean, hain ezkutuan gordetako istorio horiek berreskuratu eta denon oroimenean sartzeko balio dute. Azken batean, gerrak sortu zuen min hori, gizartean zehar erakusgarria da, eta gaur egungo gizarteko familia askok bizi izan zuten min hori, beraz, oroitzen traumatiko eta pertsonal horiek, gizarte guztiaren oroimen kolektiboan txertatu eta gerrarekiko dagoen sentimendua zabaltzeko balio dezake (González Ruibal, 2008: 18). Hori, noski, tresna politiko bezala erabiliko da, baina horrek ez du esan nahi helburu politikoak dituen ikerketa izan behar denik; gerrak gaur egun izan duen eragina ikusarazi, eta horrenbeste min sortu duen erregimenarekin behin betiko hausteko tresna modura baizik.

Izan ere, oraindik frankismoaren arrastoekin hausteko dagoen arazoa trantsizioan sortu zen, eta ondo dakigun moduan, Gerra Zibilaren ondorioetako bat Francisco Francoren diktadura izan zen, totalitarioa eta oposizio guztia isilarazi zuena; eta garaile izan zirenez, gerraren beren bertsioa gailendu zuten. Horren ondoren, trantsizioan “Amnistiaren legea” izeneko eman zen 1977an, frankismoko preso politikoak aske uzteko erabili zutena (salbuespenekin), baina horrekin batera, gerran parte hartu zuten militar frankistak epaitzea debekatu zuten, nolabait frankismoarekin erabat haustea ekidin zutelarik. Ez hori bakarrik, Espainiako legediaren arabera, ondarea gutxienez 100 urte dituen kontsideratzen zen, 1985era arte behintzat (García-Raso, 2009: 64). Ondoren, autonomia erkidego bakoitzak bere legedia egin zuen, eta batek ere ez zuen 100 urteko muga hori ezarri. Ez hori bakarrik, urte horretatik aurrera metodo arkeologikoaren bidez ikertzen zen guztia ondare modura kontsideratzen da. Hala ere, praktikan arkeologoek hartu zuten ikuspegia erredukzionalista izan zen, eta iragan hurbilari garrantzi gutxi eman

zitzaion. Beraz, gaur egun gehiago ikertzen ari den arren, oraindik gutxi da ikertu dena, eta lan asko dago egiteko (Escribano-Ruiz, 2017: 516).

Egoera guzti horrek beste aurreiritzi bat sortzen du, hau da, Gerra Zibilaren arkeologia “politizatuta” dagoela. Egia da kasu batzuetan Gerra Zibila alderdi politiko desberdinen intereserako erabiltzen dela, baina ez da orokorrean ematen den zerbait. Bestalde, logika duen zerbait da, azken finean, jende askoren heriotza suposatzen zuten gertakari bat da, diktadura baten eta demokraziaren arteko gerra bat izan zen, gure familietan bizi eta ikusi izan dena, eta gizarte honetan zauri sakona utzi duena (González Ruibal, 2016: 32).

Hala ere, horrek ez du esan nahi ezin denik inpartziala izan, azken batean, arkeologia korrante hau ikusteko hainbat modu daude: Gerra Zibileko galtzaileen oroimena berreskuratzeko egin behar den lan politiko modura, edo beste edozein gertakari historiko bezala ikertu daitekeena (González Ruibal, 2008: 17). Biak berdindira legitimoak, bi bideak erabil daitezke bakoitzak helburu desberdinak dituelarik. Batzuek, esan dugun bezala, borrokatu eta galdu zuten horien memoria berreskuratu nahi dute, eta tartean interes politikoak daude. Baina egiten diren beste ekintza batzuetan bezala; adibide bat jartzearren, urriaren 12an Amerikaren “deskubrimendua” erabiltzen da espainiar nazionalismoaren erakusgarri bezala, interes politiko garbiak dituena. Hortaz, edozein gertaera historiko erabil daiteke interes politiko bat bultzatzeko, duela 80 urte edo duela bost mende gertatu. Bestalde, ikerketa historiko bat bilatzen da, galdera desberdinak planteatuz, gerraren berreraikuntza osatuago bat helburu izango dute; nahiz eta, ezinezkoa den %100 bertan bizi izan zena erreproduzitu, gerturatzeko aukera hori sortzen da (gorago aipatu ditugun ahozko iturriekin bezala). (González Ruibal, 2016: 36-37). Esan daiteke beraz, gerrako gertakari desberdinen erreproduzio inpartzial bat dela, alde batekoen zein bestekoen posizioak eta estrategiak erakutsiz, helburu politikorik gabe.

Beraz, nolabait esateko, nahiz eta inpartzialtasuna bilatu, ezin da ukatu arkeologia horretan interes politikoak daudenik, arkeologia korrante hau trantsizioan hasi zen ahazte prozesuaren aurkako aldarrikapena baita (González Ruibal, 2008: 19). Erreakzio bat, 1977ko Amnistia legeak Espainiako politikari eman zion joera horri, eta frankismoak ekarri zituen ankerkeriekin behingoz hausteko eta kondenatzeko, azken finean. Lehen ere (arkeologia gai hau aztertzeko metodo bezala erabiltzen hasi baino lehenago), artxibategietako dokumentaziora jotzeko arazoak jartzen ziren, eta ez da denboran

gehiagi atzera egin behar; 2018ko apirilaren 8an atera zen berriaren arabera, artxibo militarrek beren dokumentazioak lortzeko bideak itxi zituzten (Romero, 2018/1)⁷.

Honek guztiak ez du esan nahi iturri batzuk beste batzuk baino gehiago balio dutenik, edo metodo bat erabiltzeak beste bat erabiltzeak baino sinesgarritasun gehiago emango digunik. Azken batean, arkeologia edo historiografia bezalako zientziak, interdiziplinarrak dira, eta ez dute zertan beti bat egin. Saseta Defentsa Sistematan adibidez, historiak eta arkeologiak bat egiten dute, garaiko testu idatziek esaten dutena arkeologiak ziurtatzen dutelarik, arkeologiak bete ditzaken funtzio askotariko bat betetz. Gorago esan dugun moduan, arkeologia beste zientzia ugariarekin ere elkartu daiteke, eta gaur egungo gizartea aztertu, soziologiarekin lotuta adibidez⁸. Guk lanean zehar aztergai izan duguna gaur egungoa ez den arren, gure gizartean eragin handia izan duen gertakari bat izan zela esan daiteke, oraindik Bigarren Errepublikaren oroimena eta frankismoak ekarri zuen errepresioaren salaketek bizirik dirautelarik, beste batzuek ahazteko egin zituzten saiakeren aurrean.

7. ONDORIOAK:

Beraz, lan honetatik bi ondorio nagusi atera ditzakegu, bat ikertu ditugun aztarnategiekin lotuta dagoena, eta bestea Gerra Zibilaren arkeologiak duen balioarekin lotuta dagoena. Horrela, agertu ohi diren bi arazori emango diogu erantzuna, lehena Gerra Zibilaren izaerari buruzkoa litzatekena, hots, benetan espainiarra soilik izan ote zen edo joera internazionalik bazuen. Besteak aldiz, arkeologia garaikideak eta gaur eguna aztertzen duen arkeologiak duen balioa definituko luke, hau da, beste era bateko iturrien aurrean, kultura materiala aztertzen duen metodo honek duen balioa.

Lehenengo galderari erantzunez, Gerra Zibila oso gertakari konplexua izan zen, eta lanean esan dugun moduan, gaur egun arte zailtasun asko egon dira ikertzeko orduan. Besteak beste, arkeologiaren bidez gerra honen izaera internazionala ikus daiteke, esan dugun moduan aurkitutako atzerriko materialen ondorioz. Hala ere, egia da kasu

⁷ Artxibo militarretako dokumentazioa blokeatu zuten, bereziki Gerra Zibilarekin lotuta zegoena, inorri ezer esan gabe. Komunikabideak artxibategietako langileen bidez konturatu ziren, horiek konturatu zirenean Twitter izeneko sare sozialean publikatu zutelako. 2018ko apirilaren 12an atzera botako ziren, eta aurreko egoera berdinerantz itzuli ziren (Romero, 2018/2).

⁸ Lehen aipatu dugun Rathje-ren "garbology" izeneko ikerketak, gaur egungo gizarte kontsumista ikusteko modu bat da, adibidez. Zakarrentzira botatzen diren produktuen ikerketaren bidez gizartearen izaera ikusteko planteamendu bat da.

batzuetan oso zeharkako parte hartzea izango dela, batez ere armamentu bidez eta merkatu beltzaren bidez (txekoslovakiarren kasuan, batez ere). Gertatu zen garaian, eta gaur egun ere, konflikto nazional bat izan zela erakutsi nahi izan da, erregimen aldaketa soil bat suposatuko zuen gerra, eta “familia eta lagun artekoen” gerra soil bat. Baina, lan honen bidez eta aurretik egin diren beste ikerketa ugariaren bidez, ondo dakigu interes internazional asko zeudela gerra honetan jokoan, besteak beste alemaniarren eta italiarren eskutik, gerran gehien parte hartu zuten atzerriko herrialdeak izan zirelarik.

Gainera, ikerketa honek gerraren garapen bizkorra erakusten du, urtebete baino gutxiagoko epe batean, aurkitzen diren materialen dibertsitatea eta modernizazioa, eta interes internazionalen presentzia gero eta handiagoa nabaritzen direlarik. Horrela, berriro ere azpimarratzekoa litzateke, askotan Espainiako barne gatazka bat izan dela pentsatu izan dena, nazioarteko interesa zuen gerra bat izan zela, kanpoko presentzia handia nabaritzen delarik. Hala ere, aipatu dugun moduan oraindik berriak diren ikerketak dira, eta seguruenik datu gehiago emango dituzte denborak aurrera egin ahala, eta noski, ikertzen jarraitu ahala.

Azkenik, Gerra Zibilaren arkeologia egitearen garrantziari dagokionez, lanean zehar esan dugun moduan, azpimarratu beharrekoa da ikuspegi aldetik ematen duen zabaltasuna, gogoan hartuz gerraren bi alde ikusteko gai dela, egunerokotasunari dagokiona alde batetik, eta gerraren estrategia eta norabideari dagokiona bestetik. Beste iturri batzuk existitzeak ez dio baliogarritasuna kentzen, azken batean, elkarrekin baliatu daitezken metodoak baitira.

Gerra Zibila aztertzeko metodo asko erabili izan dira, esan ditugun iturri idatziak, ahozko iturriak, ikus-entzunezko iturriak eta abar. Arkeologia gai hori jorrazteko zerrendara gehitu den beste metodo bat da, gerrak utzi zituen aztarnak eta istorioak osatzeko balio duena. Ez hori bakarrik, ikerketa gai hori jorratzeak ez baitu gerraren beste ikuspegi bat ematea soilik, esan dugun moduan, gaur egungo gizartean oraindik eragin handia duen frankismoaren erregimeneko ideiekin haustea baizik. Erregimen horrek suposatu zuena erakutsi, eta horren bidez, gizarteari Gerra Zibilak gudan izan duen eraginaren inguruko ikuspuntu berria zabaldu.

8. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA:

- Almorza, K. eta Buces, J. (2016), *Saseta Defentsa Sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen*. Aranzadi Zientzia Elkarte, Gipuzkoa.
- Ayán, X. eta Santamarina, J. (2016), *Arqueología de la guerra civil y socialización del patrimonio en el monte San Pedro (Lezama-Arrastaria, Amurrio, Araba)*, Memoria Teknikoa.
- Azkue, K. (2004), *Araba, oi Araba! La lucha en Araba por la libertad de Euskal Herria*, Orduñako udala eta Laudioko udala.
- Balchada, S. (2016), Batallón Bakunin CNT nº 1, *Lubakikoak*. <http://lubakikoak.com/batallon-bakunin-cnt-no1/> 2018ko maiatzaren 2an kontsultatua.
- (2017), La Casa del Salvador de Amurrio: De Reformatorio a Cuartel de Milicias, *Lubakikoak*. <http://lubakikoak.com/la-casa-del-salvador-amurrio-reformatorio-cuartel-milicias/> 2018ko maiatzaren 2an kontsultatua.
- Barruso, P. (1996), *Verano y Revolución. La Guerra Civil en Guipúzcoa. Julio-Septiembre 1937*, Haranburu, Donostia. <http://www.gipuzkoa1936.com/verano2-e.php>
- Buces, J. (2016), “Eusko Gudarostearen eta Komandantzia Militarraren sorrera Azpeitian”, *Azpeitia 1936-1945*, Aranzadi Zientzia Elkarte. <http://amarauna.org/azpeitia/36-45/?h=eu&a=3.1>. 2018ko maiatzaren 2an kontsultatua.
- Buchli, V. eta Lucas, G. (2001), “The Absent Present”, *Archaeologies of the Contemporary Past*, Taylor and Francis Group, Londres, 3-18 orr.
- Eric Tourigny, Sarah Newstead, Sergio Escribano-Ruiz, Borbala Nyiri, Lindsay Lloyd-Smith & Timo Ylimaunu (2017), Global post-medieval/historical archaeology: what’s happening around the world?, *Post-Medieval Archaeology*, 51:3, 515-523. <https://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/00794236.2017.1388597>

- García-Raso, D. (2009), De la Basura a las nuevas tecnologías: base bibliográfica para un estudio de cultura material contemporánea, *Arqueoweb: revista sobre arqueología en internet*, 12.
- González Ruibal, A. (2008), Arqueología de la Guerra Civil Española, *Complutum*, 19. Bolumena 2. Zenbakia, 11-20 orr.
- (2016), *Volver a las trincheras: una arqueología de la Guerra Civil Española*, Alianza Editorial, Madril.
- Herrero, X. (2016), Batallones en el monte San Pedro: el Leandro Carro, *Guerra en la Universidad*. <http://guerraenlauniversidad.blogspot.com.es/2016/11/batallones-en-el-monte-de-san-pedro-el.html> 2018ko maiatzaren 2an kontsultatua.
- Moreland, J. (2013), Words and Things: Technology and Belief. In *The Oxford Handbook of Archaeological Theory*. Oxford University Press. Retrieved 27 Apr. 2018, from <http://www.oxfordhandbooks.com/view/10.1093/oxfordhb/9780199567942.001.0001/oxfordhb-9780199567942-e-005>.
- Romero, P. (2018), “Los Archivos Militares bloquean de repente el acceso a toda documentación histórica marcada como clasificada”, *Diario Público*, 2018ko apirilaren 18an kontsultatua. <http://www.publico.es/sociedad/memoria-historicaarchivosmilitares-cortan-repente-acceso-documentacion-historicamarcadaclasificada.html>
- (2018), “El Ejército rectifica y permitirá el acceso a los archivos de la Guerra Civil”, *Diario Público*, 2018ko apirilaren 18an kontsultatua. <http://www.publico.es/politica/ejercito-rectifica-reabrearchivos-guerra-civil.html>
- Vargas, F. M. (1999), Gudaris guipuzcoanos en el ‘Euzko Gudarostea’ (1936-1937), *Bilduma*, Errenteria, 193-235 orr.